

GOIERRIKO GIZARTE ARLOA

1. SORRERA

2005 Urtea.

Prospektiker taldearen bitartez, Goierri eskualdean Plan estrategiko bat bultzatu zen. **Hiru Esparru** jorratu ziren:

1. Ekonomikoa.
2. Ingurumena.
- 3. Gizartea.**

Urte honetan zehar eman zen prozesua:

1. Eskualdeko **Diagnosia**. Hausnarketa gaiak hauek izan ziren .
 - Biztanleriaren egitura eta bilakaera.
 - Biztanleriaren zahartze prozesua.
 - Gizon eta emakumeen arteko eskubide berdintasuna.
 - Solidaritatea eta kohesio soziala.
 - Immigrazio fenomenoak.
 - Kultura. Ondare eta euskara.
 - Etxebizitza.
 - Enplegua eta etengabeko prestakuntza.
 - Kapital soziala.
- 1.1. Diagnostikoa osatzen duten gaietatik **Erronka** hauek azaldu ziren :
 1. Berdintasun eta gizarte kohesiorako plangintza

2. Kultura eremua eta Euskararen erabilera bultzatu eta indartu
3. Eskualdeko lan-munduaren aktibazioa
4. Etxebizitza behar berriei erantzuteko plangintzak bultzatu
5. Goierrin biztanleria indartzeko ekiditeko plangintzak aurrera eraman

1.1.1. Erronka bakoitza lortzeko **ekintza ezberdinak** planteatu ziren. Guztira 37.

1.1.1.1 Ekintza guzti hauetatik ondorengoak izan ziren **priorizatuak**:

- 1. Emigranteei arreta eskaintza plana.*
- 2. Herritarren parte hartzea.*
- 3. Gizarte baliabideen gida.*
- 4. Eskualdeko gizarte kontseilua.*

2006 urtea

Lehentasuna emandako Ekintzak **martxan jartzen hasi** ziren.

1. **Immigrazio plana** aurrera eramateko erabakia hartu zen goierri eskualdean. Eusko Jaurlaritzako immigrazio sailaren bitartez.
2. **Herritarren parte hartzea** bultzatzeko proiektua martxan jarri zen. Hasieran Gipuzkoako Foru aldundiko berrikuntza sailaren bitartez egin zen. Proiektuaren helburua, ikaskuntzaren bitartez herritartasun aktibo bat sustatzea zen. Gaur egun, proiektua Ikasiz izenarekin ezagutzen dugu.
3. **Gizarte baliabide gida**. Goierritar edo Goierri eskualdera etortzen den edozein pertsonari zuzendutako gizarte baliabide liburua lantzen hasten da, esperientzia eskolako ikasle ohien elkartearen kolaborazioarekin.
4. **Gizarte kontseilu** bat eratzen hasten da.

2007 Urtea

1. Immigrazio plana. **ELKARBIZITZA PLANA.**

- a. Goierriko egoera migratorioari buruzko azterketa amaitu eta herritarrei eta erakundeei aurkezten zaio.
- b. Goierri kolore. Kulturen arteko topaketa.
- c. Goierriko Harrera sarea eratzen hasten da.

2. Herritarren parte hartzea. **BOZI (2006-2008)**

- a. Formazio moduluak martxan jartzen dira. Ematen diren gaiak, Adimen emozionala eta komunikazio gaitasunaren ingurukoak.
- b. Ikaskuntza sarea osatu. Goierriko erakunde eta agente formatiboekin kontaktuak.
- c. Bitartekaritza zerbitzua ezagutzera eman.
- d. Formazio eskaintzak web gunean ipini
www.bozi-altv.net/goierri

2008an emandako aldaketa. **IKASIZ zerbitzua (2008-...)**

- a. Bitartekotza Zerbitzua bi eskualdeetan ezagutzera eraman (Goierri eta Urola Garaia)
- b. Bi eskualdeetako ikaskuntzarekin loturik dauden entitateekin harremanetan jarri eta Ikaskuntza Sare bat sortu:
www.goierri.org/eu/area_social/ikasiz_red_aprendizaje/
- c. Orientazio eta aholkularitza zerbitzua eman.
- d. Bi eskualdeetako ikaskuntza ekintzak jaso eta informatizatu:
www.hiru.com/ikasgida

3. Goierriko baliabide gidaren aurkezpena. **“GOIERRI ZURE ESKURA!”**. 6 hizkuntzatan argitaratzen da (euskara, gaztelania, ingelesa, frantsesa, arabiera eta errumaniera).
4. **Gizarte kontseiluak**, urtean zehar **bi bilera** burutzeko konpromezua hartzen du.
 - a. Ekainean. Lehentasuna emandako ekintzen jarraipena.
 - b. Abenduan. 2005 urtean planteatutako 37 ekintzetatik, lehentasuna eman ez zitzaien ekintzen artean **lehentasun prozesu bat egin berriro**.
 - i. Gizarte kontseiluaren dinamizazioa (28 Ptua)
 - ii. Etxebizitza. (8 Ptua)
 - iii. Emakumea (6 Ptua)
 - iv. Adineko Pertsonak (5 Ptua)
 - v. *Etxebizitza egokitu larrialdietarako kasuetarako eskualdean. (5 Ptua)*
 - vi. *Foro kulturala sortu (4 Ptua)*
 - vii. *Ikerketa eskualdeko behar eta eskaintza formatiboaren inguruan. (3 Ptua)*
 - viii. *Udaletxeetatik informazioa bidali etxe hutsen jabeei. (0 Ptua)*

2008 urtea

1. **Gizarte Kontseiluaren dinamizazioa**. Kontseiluan parte hartzen duten agente desberdinak beraien aurkezpena egiten dute.
 - a. Ekainean. Udaletxeak ez diren erakundeak.
 - b. Abenduan. Udaletxeetako gizarte sailak.

2. Emakume eta gizonezkoen berdintasunerako ondorengo

ekimenak martxan jarri nahi izan ziren.

- a. Sentsibilizazioa
- b. Teknikariei zuzendutako formazioa.
- c. Herritarrentzako jardunaldia.

Ekintza hauek gauzatzeko diru laguntzak berdintasun planak bere osotasunean aurrera eraman nahi dituzten entitateei zuzentzen zaie, gure kasuan ekintza konkretu batzuk aurrera eraman nahi genituen ezin izan genuen finantziatorik lortu eta ezin izan ziren garatu.

3. Etxebizitza.

- a. Esperientzia berriak ezagutu. (Adib: Suradesa en Arrasate).
- b. Larrialdietarako pisuak. Goierri eskualdean pisuak dituzten herriak ezagutu.